

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Gure proiektuak EgokituSports izena du, Donostian aurki daiteke eta 5 kidek osatzen dugu. Gure helburu nagusia kirol egokiturako materialaren alokairu eta salmenta zerbitzua eskaintzea da, baita kirolaren munduan parte-hartzea erraztea eta desgaitasunak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Gure ekimenaren bidez, pertsona desgaituek kirol jardueren bidez inklusioa, parte-hartzea eta pertsonen autonomia sustatzeko aukera izango dute.

Proiektu honen bidez, inklusio soziala sustatu nahi dugu, eta pertsona desgaituek euren gaitasunak garatzeko aukera izan dezaten. Material egokituak alokatzeaz eta saltzeaz gain, gure produktuen prezioak justuak izango dira, diru nahikorik ez duten pertsonen eskura jarritz aukera hauek. Gure zerbitzuan kirol mota desberdinek hartzen dute barne, hala nola: saskibaloia, txirrindularitza, futbola, eskupeleta, atletismoa, igeriketa, tenis eta padel egokituak. Bezeroen beharren arabera, alokairua eta salmenta bermatuko ditugu.